

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Landa, hiri eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga kobratzea

Ondoren zerrendatzen diren udal zergen 2019ko ordainagiriak kobratzeari ekingo zaio:

Landa, hiri eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

Ordainagiriak udalaren bulegoetan ordaindu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko ordutegian, 9:30etik 13:30era.

Borondatezko epean ordainduko dira, 2019ko urriaren 21etik abenduaren 20ra, biak barne.

Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2019ko abenduaren 18an.

2019ko abenduaren 21tik aurrera ordainagiri horiek Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobra daitezten.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2019ko irailaren 9a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA